

«Udalerri euskaldunak inguru hauskor bezala ikertu behar dira»

UEMAk eskatuta, Gaindegiak zenbait azterlan egin du udalerri euskaldunen ezaugarri sozioekonomikoen egoeraz eta bilakaeraz. Imanol Esnaolak koordinatu du lana. Ondoko galderari erantzuten saiatu dira: Zer gertatu da inguru euskaldunetan halako bilakaera soziolinguistikoa izateko? Esnaolaren ustez, lurgune euskaldunek soziolinguistikoki duten izaera hauskorra ez da aintzat hartu, eta ez da berariaz azterketa eta esku-hartzerik egin.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |



GAINDEGIA.EUS

“Udalerri batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso euskaldunean. Horiek babestuta daude. Beste batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso erdaldunean. Horiek arriskuan daude”.

Lehenengo aldia al da horrelako azterketa bat egiten dela?

1982an, EAEko Euskararen Legea egin zenean, Espainiako Auzitegi Konstituzionalak atzera bota zuen puntu bat. Hark zioen udalerriek

egoera soziolinguistikoaren araberrako hizkuntza politikak egiteko aukera izango zuketela. Geroztik, udalerri euskaldunei, inguru soziolinguistiko hauskor moduan ulertuta, ez zaie arretarik eskaini, ez iker-

ketari dagokionez, ezta esku-hartze berezituari dagokienez.

Zer egiten dugu inguru hauskorrotan? Eskola euskaraz; bai baina hori baduzu hiri erdaldunagoetan ere. Telebista euskaraz? Eta beste

mila kate gaztelaniaz. Administra-zioa euskaldundu? Bai, baina etxebizitza politikaren bidez sare informaletan erdal hiztunak saldoka txertatu. Inguru euskaldunek ez daukate bertako hizkuntza komunitateari eusteko eta biziberritzeko baliabiderik, ez estrategiarik. Are gehiago, horren gaineko ezagutzarik ere ez dugu garatu. Ongi dago euskararentzat eremu berriak eskuratzera, gabezia sumatzen dut ordea, ohiko erabilera eremu eta erabilera araueti eusteari dagokion interbenzioetan.

Udalerritako bilakaera sozioekonomikoa eta soziolinguistikoa lotuta al daude?

Zalantzarik gabe. Udalerrri euskaldunetan, biztanleria %8 hazi da, harik eta herritik kanpo jaiotakoak %51 izatera iritsi arte, eta etxebizitza kopurua are gehiago hazi da, %38. Gainera, etorri berrietako askok ez dakite euskaraz, biztanle euskaldunak zahartzen eta hiltzen ari dira, herriko gazteen hamarretik zazpi kanpora doaz ikastera edo lanera.

Datu demolinguistikoak alderatu aldagai sozioekonomikoekin, eta egia, bat datoz. Etixerik eraiki ez balitz euskaldunagoak izango lirateke herri horiek? Nik ez diot hori, beharbada lehen bezain euskaldun, eta beharbada are erdaldunago. Azken hamarkadetako bilakaera ez dut kontatu nahi tragedia balitz bezala, prozesu mekanikoa balitz bezala baizik. Inguru hauskorrak dira, eta hori kontuan hartuta ikertu behar dira. Ez dezagun ahaztu, halaber, hizkuntza eskubideen jabe direla, elebidun izan beharrik gabe.

Udalerrri euskaldunaren hizkuntza ingurua aztertu duzue, alegia, euskarra gaitasuna eskualde buruan eta udalerrriaren hamar kilometroko erradioan. Zer garrantzi du horrek?

Udalerrri euskaldunek inguruan zein herri dauzkaten aztertu dugu. Esate baterako, Hondarribia eta Oiartzun arrisku handieneko herrien artean daude. Hondarribia gipuzkoar eta nafar askoren ametsetakoa bizilekua da, eta Oiartzun antzeko zerbait. Lehenak Irun du aldamenean, eta 70.000 erdal hiz-

tun ditu. Bigarrenak Irun bera, Donostia, Erreterria, Lasarte-Oria ditu alboan... Hondarribian eta Oiartzunen etxeak egiten badituzu, biztanle kopuru bat eskualde burutik etorriko zaizu, eta zerbitzu bila herritik ateratzen bazara oso litekeena da eskualdeko udalerrri burura joatea. Hor euskaraz aritzeko aukerak galtzaile. Erradioari dagokionez, udalerrri batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso euskaldunean. Horiek babestuta daude. Beste batzuk izan daitezke oso euskaldunak inguru oso erdaldunean. Horiek arriskuan daude.

Ehun ekonomikoa aztertu duzue.

Lanerako sasoian dagoen jendeak bizimodua non egiten duen jakitea oso garrantzitsua da. Egunero Zaldibiatik Donostiara joaten bada lanera, haren hizkuntza praxia eta eragina asko aldatzen dira, baita trebetasuna ere. Agian, gaztelaniaz egiten behar du Donostiako lantokian. Egunero itzultzen da etxera, bai, baina egun osoa kanpoan pasa du eta ez da herri komunitatean hiztun aktiboa.

“Kontua ez da tragedia kontatzea edo nostalgikoa izatea, kontua da gertatzen ari dena prozesu mekaniko gisa aztertzea”

Ehun ekonomikoa nolakoa den aztertzeak etorkizunean udalerriotan nolako jarduera ekonomikoa egon daitekeen azal dezake. Adibidez, udalerriotan industriako enpresa gehienak teknologia maila apalekoak dira, eta ondorioz, aurreikusitako direla. Enpresak ixten badira enpleguak galduko dira, eta langabeziak gora egiten badu herritarrek kanpora aterako dira lan bila. Hiztun euskaldunak batetik bestera dabilta edo galdu egiten dira. Hala-kote kate bat osa daiteke.

[Grafikoa erakutsi dio kazetariari]. Zein herri ikusten dituzu? [Arama, Aduna, Altzo, Gaztelu, Zizurkil, Zerain, Segura...] Langa-

Azterketaren sei txostenak

Ondoko datu bilketak egin ditu Gaindegiak:

- Enpresa demografia.
- Etxebizitza parkearen bilakaera.
- Biztanleriaren jatorria.
- Biztanleriaren irautea eta erakartzea.
- Udalerrri euskaldunen hizkuntza ingurunea.
- Biztanleriaren mugikortasuna.

Informazio guztia:

www.uema.eus/azterketak

- Udalerrri euskaldunetako bilakaera soziolinguistikoaz elkarrietzeta Iñaki Iurrebasori: www.argia.eus/argia-astekaria/2460/inaki-iurrebaso

bezia tasaren hazkunde handienetakoak non daude? Udalerrri euskaldunetan. Hamar langileko tailer txikia ixten bada langabeziak asko egiten du gora. Bertan ez bada lanpostu berriak sortzen, inguruko herriren batera joango dira lanera, eta agian bizitzera. Eremu horietako egitura ekonomikoa ere diseinatu egin behar da.

Udalerriotan euskaldunak euskaldun dira hala etorri zaielako. Zuk esana da.

Aipatu ditudan aldagai sozioekonomikoak oso garrantzitsuak dira, hain zuzen ere udalerrri euskaldunetako euskaldunak ez direlako euskaldun hala erabaki dutelako, baizik eta hala etorri zaielako. Beraz, baldintzak aldatzen badira jarrera ere aldatu egiten da. Euskaldun izateaz harro daude, baina ez dute erresistentzia mekanismorik. Koherentzia gordetzen zuten elementuak aldatzen ari dira, eta horrek kezkatzen nau. Ez dira erdaldundu borondatez, ingurua erdaldundu zaielako baizik. Lehen esandakoak: erdalduna dator (eta berak ez du errurik), bertako euskaldun gazteek alde egin dute, zaharrak hil dira. Berriro diot, kontua ez da tragedia kontatzea edo nostalgikoa izatea, kontua da gertatzen ari dena prozesu mekaniko gisa aztertzea. ■